

Azken proba

A1_2021.1

Talde zk.:

Ikaslea:

NA:

Data:

Entzundakoaren ulermena

Bi aldiz entzungo duzu entzungaia.

Non sartu zara?

Ama: Baina, baina... Non sartu zara?

Iker: Hor, lagunekin... Badakizu... parkean ibili gara...

Ama: Eta hori, begira, zer egin duzu belaunean?

Iker: Bada, arazo batzuk eduki ditugu.

Ama: Arazoak? Zer egin duzue?

Iker: Bada, Prontxioren baratz ondoan ibili gara futbolean eta... Bada, baloia barrura joan zaigu... eta sartu egin gara.

Ama: Eta zer? Nola egin duzu belaunekoa?

Iker: Itxoin! Baratzean sagarrondo eder bat ikusi dugu, eta gosea sartu zaigu... eta sagar pare bat hartzea pentsatu dugu.

Ama: Eta? Iker, Badakizu, hori ez dago ondo!

Iker: Bai, baina ez dut meriendarik eraman...Beno, arbolara igo gara eta sagarrak hartzen

hasi gara. Bat-batean atea zabaldu da, eta, Prontxio! Oso haserre zegoen, eta garrasika hasi da. Presaka jeitsi gara zuhaitzetik, eta danba! Lurrera erori naiz...

Ama: Baina, baina... eta gero zer?

Iker: Ezer ez. Hormaren gainetik salto egin dugu, eta etxera etorri gara. A! eta begira, Sagar bat ekarri dut zuretzat!

Entzundakoaren ulermena

- 1.- a) Prontxioren baratze ondoan ibili dira
b) Prontxioren salan ibili dira
c) Prontxioren amarenean ibili dira

- 2.- a) Baratzean egarria sartu zaio
b) Baratzean pixagura sartu zaio
c) Baratzean gosea sartu zaie

- 3.- a) Prontxio negarrez hasi da
b) Prontxio jolasean hasi da
c) Prontxio garrasika hasi da

- 4.- a) Ikerrek hormaren gainetik salto egin du
b) Ikerrek uretara egin du salto
c) Ikerrek esku eman dio Prontxiori

- 5.- a) Ikerrek amari isuna ekarri dio
b) Ikerrek amari sagar bat ekarri dio
c) Ikerrek musu eman dio amari

Irakurritakoaren ulermena

Basoan ume bat galdu da

Gaur igandea da eta eguraldi ona dugu. Harritzekoa da, igandea eta eguraldi ona! Animatu, goizean goiz jaiki eta mendira joan gara, Pagoetara. Pagoeta Zarautzen dago. Zarautzen ala Aian? Ez nago ziur, hor nonbait. Guk badakigu bidea, ez dugu arazorik. Baina Xabik bai, larri dago. Basoan galdu egin da.

- Zer duzu, mutiko?

- Bakarrik nago, ez dakit non dauden nire anai-arrebak.

- Zer izen duzu?

- Xabi

- Nongoa zara?

- Oriokoa

10 urte ditu, luzea, kaskagorria eta argaltxo da. Ez da negartia; bizkorra dirudi, baina beldurtuta dago. Ez daki nola galdu den. Goizean goiz anai-arrebak etxetik irten eta mendira joan dira. Basoan barneratu dira. Bera txori-kantak entzuten geratu da, eta, bitartean, anai-arrebek aurrera egin dute. Bat-batean bakarrik aurkitu da. Ez du motxilarik eta ez dauka ezer, ez jatekorik, ez edatekorik. Eta okerre, ezta mugikorrik ere. Zer egin behar du? Mobilik ere ez! Hau, bai, mixeria!

Eskerrak gurekin topo egin duen! Gu jende jatorra gara eta lagunduko diogu. Auto txiki- txikia dugu, baina sartuko gara. Saiatuko gara gurasoek ertzainari deitu baino lehen etxera iristen.

Erantzun EGIA ala GEZURRA den

	Egia	Gezurra
1.- Gaur larunbata da.		
2.- Euria zarra-zarra ari du.		
3.- Pagoeta Orioko ibaia da.		
4.- Xabik txoriak entzun ditu.		
5.- Xabi Aiakoa da.		
6.- Xabik mugikorra motxilan dauka.		
7.- Xabi ikaratuta dago.		
8.- Gu presaka gabilta.		
9.- Ertzainari deitu diogu.		
10.- Gure autoa oso txikia da.		

IDAZMENA



Egoera

Ikusi duzue: Xabi basoan galdu da eta gurekin topatu da.

Egitekoa (gutxienez, 70 hitz).

Idatzi mezu bat Xabiren gurasoei lasai egoteko esanez. Esan nor zareten. Kontatu gertatutakoa labur-labur, eta esan Xabi nola dagoen.

MINTZAMENA

ARiketak bi zati ditu ,eta binaka egingo duzue:

- Norberaren aurkezpena irakasleari.
- Elkarriketa zure ikaskidearekin edo irakaslearekin.

Guztira 30 minutu-edo iraungo du. Ikasle bakoitzak 5 minutuko solasaldia egin beharko du.

1. Aurkeztu zeure burua, labur

Nor zara, nongoa zara, lanik egiten al duzu, zertan, zein dira zure zaletasunak

2.

Egoera

Ume bat aurkitu duzue basoan galduta.

(2 lagunen artean egin, batek umearen papera eta besteak aurkitzailearena)

Egitekoa: Horrelako egoera batean, umearekin hitz egin: egin galderak batak, erantzun besteak. Lasaitu.

3.

Egoera

Umea lasaitu da eta orain gurasoengana eraman behar duzue.

Egitekoa

Gurasoei telefono deia egin: zer gertatu den kontatu eta non. Eta adostu noiz elkartuko zareten.

ERANTZUNAK

A1

ENTZUMENA (Item bakoitzak 2 puntu. Gainditzeko, gutxienez 6 puntu lortu behar dira)

Non sartu zara?

1	2	3	4	5
A	C	C	A	B

IRAKURMENA (Item bakoitzak puntu 1 balio du. Gainditzeko, gutxienez 6 puntu lortu behar dira)

Basoan ume bat galdu da

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
G	G	G	G	G	G	E	G	G	E